

## Franco izan da gaur arte Hernaniko Ohorezko Alkatea

■ 1949an izendatu zuen orduko udal taldeak, aho batez ■ EHk proposatuta, gaurko plenoak kenduko dio *Generalissimoari* Ohorezko Alkate titulua ■ 19:00etan.



Ezkerretik: EH, eta EA-EAJtako zinegotziak Zerga Ordenantza berriak onartzen, aurreko plenoan.

FRANCISCO Franco *Caudilloa* izan da 51 urtetan Hernaniko Ohorezko Alkatea. 1949-izendatu zuten, Franco Donostiako *La Cumbra* etorri zen batean. *Patxi Zaharra* Gipuzkoako alkateekin biltzeko zen abuztuaren 23an herri guztietako Ohorezko Alkate bera zela esateko. Luis Azkue alkateak eta zazpi zinegotziak 21ean batzar berezia egin eta aho batez eman zioten gaurko plenora bitarteko titulua.



Franco zena, bizi zela.

**KALE ETA AUZO IZENAK.** Gaurko plenoan beste hiru puntu eztabaidatuko dira: 1) herriko kale eta auzo izenak. 2) Ongintzako zuzendaritzan herritarren orderkaritzaren zuzendaritza izendatzea. Zuzendaritzan herritar batek egon behar du eta hura zein izan erabakiko da gaur. Eta azkenik, M. A. Ortegaren eskariz, 13 garren poligonoan urbanizazioaren bigarren fasea egiten hasi edo ez. □

## Kronika berriz ere interneten

Arazo teknikoengatik [www.kronika.com](http://www.kronika.com) Hernaniko Kronikaren interneteko bertsioa ez da ibili. Konpondu beharrekoak konponduta, sarean da berriz. Dagoeneko, Munduko leku askotatik sartu dira dira interneteko Kronikan: Japondik, Ingalaterratik, Italiatik, Perutik, Mexikotik, Estatu Batuetatik, Bartzelonatik, Alemaniatik, Kanadatik, Frantziatik, Puerto Ricotik... □



## AEK-REN KONTRAKO AUTO JUDIZIALA 'Euskararen babes eguna' antolatu dute ostiralerako

■ Ostiralean deklaratu du Juan Mari Larrartek, Madrilen ■ Aurrera segi behar dela dio AEK-k.

UASTEARTEAN asanblada egin zen Sandiusterrin AEK-k antolatuta. Garzonen sumarioaren inguruko iritzia eman eta balorazioa egin zuten lehenik, eta aurrera zer egin hitzegin zuten, ondoren.

### "HERRI MUGIMENDUEN KONTRAKO MUNTAIA"

Hala juzkatu zituen Juan Mari Larrartek azken asteetako gertakariak, astearteko asanbladan. "Herri Mugimenduak bilturtzea eta atzeratzea" lortu nahi omen dute. Garzonen salaketa "funtsik gabea" dela eta Eusko Jaurlaritzaren erantzuna, berriz, "epela" izan dela erantsi zuen.

**ORAIN LAU URTE HASIA** AEK-k dienez kanpaina hau orain lau urte hasi zen. Orduan, Amarako euskaltegian euskara irakasteko erabiltzen zuten ari-

keta bat (bahiketa baten ingurukoa) aitzakia hartuta, komunikabideek egundoko egurra eman zioten AEKri. Geroztik, Arrasateko bulegoan sartu, kontuak blokeatu eta Iker Beristain (AEKko ekonomilaria) kartzeleratu zuten. Orduan sortu zuen, AEK, Egin, Jarrai, KAS... ETArekin lotzen dituen *sumarioa*, Garzonek.

### EGOERA SALATZEKO EKINTZAK

Gaur eta bihar, seietan irtengo dira AEKtik kartelak jartzera. Etzi, goizeko hamarretan, Plazan elkartuko dira, Juan Mari Madrilen deklaratu duen momentu berean; arratsaldeko 20:00etan, berriz, asanblada izango da Plazan, eta *manifestazioa korrika* gero. AEKk "hurbiltzeko eta zerbait antolatzeko" deia egin die herriko taldeei. □

## IGERIKETA

### Larunbatean Hernanin konpetizioa

■ Gipuzkoako Txapelketarako *denbora minimoak* egiteko da ■ Igandean, igerilari eta gurasoek urteko bazkaria dute.

## MENDIRIZ-MENDI

### Ollo-Beriain (1494 m)-Unanua datorren igandean

■ Izena emateko: astelehen, ostegun eta ostiralean, 20:00-21:00  
☎ 943-33274 ■ Bazkideek: 1200 Pta; besteek 1500 Pta.

## IPIIN KONTAKETA HAURRENTZAT

### Gaur, osteguna, liburutegian

LIBURUTEGIAK haurrentzat ipuin kontaketa antolatzen du hilean behin. Kontalaria Itziar Zubizarreta da. Gaurko emaldiak ere bi saio ditu: 3-4 urte bitartekoentzat, 17:30-18:00etara, eta 5-8 bitartekoentzat 18:00-18:30etara.



Skoda Fabia

FABIA bat 1.375.000 ptatik.\* (8.263,99 euro\*)

\* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. \*koda Fabia Classic 1.4 60 CV. Garraioa, zergak eskaintza bereziak plana inklusos. Stockeo autoentzat baliozgarria. 1 euro=166,386 ptak

**MENABI**

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4



Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN - ETXEBERRIA II / ZEBERIO III - URKO
- ⇒ 2. partidua ALTUNA I - AIZPURU / URRETA I - EIZAGIRRE
- ⇒ 3. partidua ALTUNA II - ETXABE / MATXIN - IRIARTE
- ⇒ 4. partidua BITORIA - EKIZA / IÑIGO- J. ETXEBERRIA

## LANGILE IKASTOLA

# 'Jolasa eta jostailuak' mahai ingurua gaur, osteguna, Meaben

■ 2-8 urteko umeen gurasoentzat da ■ Arratsaldeko 19:30etan.

GABONAK inguratu ahala, gurasoei kezka haundi bat sortzen zaie: umeei zein opari erosi. Gurasoek bere eskatuta, Langile ikastolak mahai ingurua antolatu du, Ongintza patronatuaren laguntzarekin. Hitzlariak Lurdes Rodríguez (Donostiako OMIC-ekoa) eta Begoña Oleaga (haur psikologoa) izango dira.

### IKASTETXE GUZTIENTZAT

Langile ikastolak antolatu badu ere, ikastetxe guztietako gurasoentzako da gaurko mahai ingurua; 2tik 8 urte bitarteko umeak dituzten guztientzako. □



Klase osoa Meaben atzo, txintxo asko.

## KARABEL AUZOA

# Umeentzako pintura, idazlan eta kross txapelketan izena ematea zabalik da

■ 'Belkara' Karabelgo auzo elkarteak antolatu du ■ Hernaniko ikastetxeekin eta Klub Deportiboarekin batera ari dira lanean.

Karabelgo auzo elkarteak herriko gazteenak marrazten, idazten eta korrika jarriko ditu, abenduaren 17an. Iaz antolatu zuten egun hau lehen aldiz eta umeek oso ondo hartu zuten: pintura eta idazlan lehiaketan 40tik gora eta korrika ere ume asko atera zen. Irabazleak, gainera, Gi-

puzkoako bigarren egin omen zuen gero.

### 'URUMEA' GAIA

Idazteko abilitadeak erakutsi nahi dituenak gai polita du: "Urumea erria eta bere eragina Hernanin". Marrazkilariek, berriz, gaia beren esku. Krossean lau kategoria izango

dira. Txikienek 800 metro korrituko dituzte eta helduek 8 kilometro.

### "SARI EDERRAK"

Irabazleentzat 10.000Ptako sariak izango dira eta bigarrenentzat 5.000Ptakoak. Izena emateko ikastetxeetan eta auzo elkarteetan bertan.

## ASTEBURUKO EMAITZAK (ESKOLARTEKO KIROLA)

ASTEBURU honetan ere jokatuko dira eskolarteko partiduak. Emaitzak, ordea, hiru

aste barru aterako ditugu, *zubilana* egiten duena oportetara joan zaigu-eta. Kontuak-

kontu 1000 ume ari dira asteburuero, hainbat kirolekin gozatzen. □



Benjamin mailako Elizatxo B eta Langile A-ko neska-mutilak, eskubaloian partidu gogorra jokatuta gero.



Ereñotzu auzoa, 68-69 (Fagollaga) Tel. 943. 55 00 31 - HERNANI



Elkano, 9 behea - 20120 HERNANI  
Tel. 943 55 60 06 Faxa 943 33 29 38

## HITZ BITAN



Gazte koadrila Kale Hezitzaileak antolatutako sari banaketan.

### ✓ KALE HEZITZAILEAK

**Skate, Roller eta MBX bizikletan ibilitzeko taldea osatu nahi dute.** Ongintzako Kale Hezitzaileak pentsatu dute talde hori sortzea, urrian antolatu zituzten ekintzetan proba horiek izan zuten arrakasta ikusita. Horretarako, bilera egingo dute datorren asteartean -abenduak 5-, Sandiusterrri behean (aparkalekutik igo eta frentean). Arratsaldeko 17:30etan da.

### ✓ ROKODROMOA

**Bilera bihar 20:00etan, Tilosetan.** Rokodromoa egiten ari dira. Etxeberrin hartu dute lokala eta orain osatzea falta zaie. Ekipamendurako 1.000.000 Ptako dirulaguntza ere eskatua dute udaletxean.

### ✓ ELUR-TXORI ELKARTEA

**Mus Txapelketan izena emateko azken eguna.** 36 bikote apuntatu dira Elur-Txoriko mus txapelketan. Banakako txapelketan, berriz, 22. Txapelketa abenduaren 12an hasiko da eta partidak astearte, asteazken eta ostegunetan jokatuko dira. Hasteko ordua: 20:00-22:00ak bitartean.

### ✓ JUBILATUAK

**Laguardiarako bidaia bertan behera gelditu da.** Jende gutxitxo apuntatu da eta ez dute autobusik aterako larunbat honetan. Urteko azken eskurtsioa Iratxera izango da, abenduaren 15ean. Izena emateko Jubilatutako pasajua; 3300 pezeta kostako da.

### ✓ BITERIKO ABERATSAK

**Burtsako bilera dute gaur Biterin, 20:00etan.** Biteriko aberatsak burtsa taldea zertan inbertu eztabaidatzeko bilduko dira. "Burtsak hondoa jo du eta aprobetxatu egin behar" inbertsoreetako batek.

### ✓ NIKARAGUATIK HERNANIRA

**Nikaraguako Popol'na Fundazioko zuzendaria Hernanin da gaur.** Popol'na garapen bidean dauden herriei laguntzeko Fundazioa. Zuzendaria, William Grigsby, Euskal Herrian da egunotan: gaur, osteguna, 14:00etan, udal ordezkariarekin bilduko da elkarlan bideak zehazteko. □

## HERIOTZAK

Pakita Telleria Urrestrarazu

Astelehenean hil zen

## AGENDA

♦ **ERAKUSKETA**  
Alberto Elosegiren argazkiak.  
Txema tabernan.

*Vietnam-i buruzko argazki erakusketa*  
Zumardi tabernan.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

▶ Eguez: Aizpuru  
Latxunbe berri, 11  
☎ 943 553582  
▶ Gaez: Diaz  
Andoain. Nagusia, 19  
☎ 943 592057